

Noaia !!

www.noaia.com



Inauterietako olatua iritsiko da larunbat honetan



Naroa Iturri
“Herrikoa eta partehartzailea da
Hamaika Telebista”



FUNERARIA GONZALEZ EHORZTETXEA

munalurra 8, Usurbil

943 36 21 63
660 388 652 - 608 16 77 92

- Zerbitzu azkarra eta etengabea 24h
- BEILATOKI GUZTIETAN zerbitzuak
- ERRAUSKETA eta errauts-kutxak
- Ospitale zentru eta egoitzetan zerbitzuak
- ASEGURU konpaini GUZTIAK, deiguzu zuzenean denetaz arduratzen gara
- Lekualdaketak, eskelak, urteurrenak...
- Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo beilatokia DOAN izango da gure eskutik

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es

Marije
Arropa danda

Denboraldi berria!

Etxebeste,3 - 943 36 11 06 - USURBIL

PREST

m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

ARETO
NAGUSIAN
Etorri aurretik
izena eman!

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE MARTXOAK 17 osteguna 17:30

ORDIZIA MARTXOAK 26 larunbata 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea

VITORIA-GASTEIZ MARTXOAK 12

larunbata, 10:30 Europa Biltzar Jauregia.



902 110 436

www.mondragon.edu/prest

Albistea iruditan!!

Ezker abertzalea, datorren legegintzaldia prestatzen

Maiatzaren 22ko udal hauteskundeetara, herri programaren lehen zirriborroa prest du jada Usurbilgo Ezker abertzaleak. Herritarren ekarpenekin osatu nahi dute ordea, "zuen ahotsa gure hitza izateko. Guztion artean Usurbil hobea eraiki asmoz", adierazi zuten larunbat eguerdian frontoian eskaini zuten agerraldian. Horretarako, etxez etxe inkesta bat banatuko dute, usurbileginez.com blogean iritzia emateko aukera izango da eta herriko taldeekin ere bilduko dira. Hauteskundeetara, 2007ko gogo berarekin aurkeztuko direla iragarri dute, "duela lau urte abiatu genuen herri proiektua bururaino eramateko".



HILAREN 12RAKO HERRI BATZARRA DEITU DUTE, 15:45ETAN ARTZABALEN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Telefono zenbakia: 943 36 03 21

E-posta: elkartea@noaua.com

www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkari koordinatorak: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publikitatea@noaua.com

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieto, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarreki ikastola.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

ORMAZABALEN DIMISIO ESKAERA _____ 5. OR.

TXOTX GARAIA ARAETAN _____ 9. OR.

"EMAKUMEAK PROTAGONISTA" ZIKLOA _____ 14. OR.

"ERREGA ETA BUFOIA" EMANALDIA _____ 17. OR.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU

☎ **943 69 68 52 · 620 800 186**

ARRANDEGIA
PELLO

Puntapax Kalea, 7
TIF 36 21 64
USURBIL

TAXI

607 92 87 70
943 00 44 83

Angel (24h) USURBIL



ARITZ GORRITI

Bi urte

Aste gutxi geratzen dira, hiru bat asko jota, ofizialki lo zorrotik esnatu eta urtaro bizi eta koloretsuenean, udaberrian murgiltzeko. Zubi lana ondo egiten lagunduko dute aurten, Gipuzkoa Zero Zabor Bilguneok Zubietan martxoaren 20an antolatu duten Flash Mob ekimenaren inguruko festarekin.

Aldarrikapen koloretsu eta alaia izango da hain zuzen, NOAUA!-ko egutegian ageri den moduan, usurbildarrak eguneroko bizitza koloreztatzen hasi zirenetik bi urte betetzear diren honetan. Egun handien antzera, M-16ak, atez ateko bilketa martxan jarri zela gogorarazten digu. 2009an izan zen eta pentsa garai hartan, egunero etxe atarira zer hondakin zati atera zalantzan izatetik, hondakin zati bakoitzean zer sartzen zen argi ez izatetik, normaltasunera, bai, normaltasunera zer modutan igaro garen.

Elkarrizketarako gai nagusi izateari utzi dio. Kontu guztietan bezala, zer hobetua beti egongo den arren, egun ez da liskarrerako auzia, bizi ohitura bat gehiago baizik. Hau makarroiak jaten ikastea, bizikleta gainean erori gabe mugitzen jakitea bezalakoxea da. Behin beldurra gaingitu, ikasi eta barneratuta, ez dago atzera bueltarik. Barneratua dago barneratu beharrekoa eta kito. Errealitatetik kanpoko komentariarik ez bada, ia nork esan dezakeen aurkakorik.

Bada ordea barneratua, eta are gutxiago onartua ez dagoen bestelako egitasmorik. Pentsa zenbat urte pasa diren. Jarri nahi zuten Urnietan, mugitu zuten Oretetara, orain han, gero hemen. Jarri dute dirua

(guztiona, noski, guri baimenik eskatu gabe. Litxarkerietarako amari dirua kentzen dion haurrak bezala, bai baitaki zuzenean eskatzen badio ez diola xentimorik emango. Haurrak ezezko borobila jasoko duela alegia), baina berdin, enpresa eraikitzaileak lortzeko lehiaketa martxan dute, bidea egiten hasiak dira... Baina hara nondik oraindik ez duten lortu denon diruarekin finantzatzeko duten egitasmo bat. Herritarrei zuzenduriko egitasmo batek behar duena, babes, onarpena, baietza.

Hamarkada bat igaro da "ideia" hau batzuei bururatu zitzaientetik. Eta errauste plantak lortu ez duena bi urte baino gutxiagoan atez ateko bilketak lortu du. Hitzez esandakoa egiaz eta ekintzez erakutsi eta egitea. Gutako bakoitzak sortzen dugun hondakinekiko erantzukizuna izatea, ingurumena eta osasuna zainduz, eguneroko ekintza txiki-handien bidez. Heldutasunez, sentsibilizatuta eta errausketaren aurrean alternatibarik badela agerian utziz.

Etorkizun hurbilak bi argazki desberdin bezain garrantzitsu utz ditzake, gai honi dagokionean. Urteurrenarekin batera, bi hitzordu zehazki; bat maiatzaren 22an, bozken bidez herrialde mailan ingurumen alorrean datozen urteotan herritarrek zer nahi duten erabakitzeko aukera izango dute, edo behar lukete. Lehenago, bigarren urteurrena aldarrikapendun dantzan ospatu nahi duenak, hor du martxoaren 20an Zubietako Flash Mob ekimena. Denok har dezagun arnas garbia. Bizitzeko, osasuntsuago noski.

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Ika-mika !!

Hamaikabaten eskerrak herri elkarteei

Leherro hauekin gure eskerrak eman nahi dizkiegu azken asteotan gure ordezkartzearekin elkartu diren herriko elkarte kultural, sozial eta kirolakoei.

Elkarte horiekin izan dugun elkarrizketa zinez aberatsa izan zaigu. Kritikak entzun ditugu eta aldi berean on egindakoak aitortu. Eta garrantzitsuena, beren lan esparruetatik, duten herri ikuspegia

erakutsi digute eta ekarpenak egin gure hauteskunde programan txertatu ahal izateko. Aldez aurretik azaltzen dugu ekarpen guztiei ezingo zaiela aurre egin; batzuk ez datozelako bat gure herri-ikuspegiarekin; beste batzuk, gaur egungo udal egoera ekonomiko-finantzarioak ez duelako ahalbidetzen. Garatu dugun herri-programa osatzeko partehartze

prozesu hau zinez aberatsa izan da, eta horregatik, beste behin ere, mila esker.

Hauteskunde programarako ekarpen gehiago egin nahi ezkerreko aukera dago www.h1usurbil.net gunean horretarako prestatutik dagoen atalean.

Usurbilgo Hamaikabat

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: martxoak 11. Idatzia ekartzeko azken eguna: martxoak 7.

Carlos Ormazabalen dimisioa eskatu dute Usurbil, Hernani eta Oiartzungo alkateek

Iruzur egitea egotzita, Carlos Ormazabal garapen iraunkorreko foru diputatuaren dimisioa eskatu berri dute Usurbil, Hernani eta Oiartzungo udaletako alkateek. Udalerriotatik atez ate bilduta eraman-dako zati organikoaren ia erdia zabortegira botatzen dutela salatzen dute, Lapatzeko konpostatze plantak ez duelako behar besteko gaitasunik aipatu hondakin zati guztia tratatzeko.

Joan den otsailaren 25ean udalbatza aretoan, Xabier Mikel Errekondok, Marian Beitialarrangoitiak eta Aitor Etxeberriak eskaini zuten agerraldian "nahita iruzur egitea" egotzen zioten Carlos Ormazabal foru diputatuari. Iruzurra, hiru alkateen esanetan, Mankomunitate, udal eta herritarrei. Lapatzeko konpostatze plantara gaika bilduta ailegatzen den organiko kopuruak bertan tratatu daitekera gainditzen duenez, landu ezin den organiko zabortegira botatzen ari direla salatu zuten hiru alkateek. Zehazki, organikoaren ia erdia, %40a, zabortegira doa, prentsaurrekoan baieztatu zuten.

Konpostatze planta, txiki

Ziotena datuekin argudiatu zuten. Usurbilen, Hernanin eta Oiartzunen atez ate bildutako organiko aintzako-tzat hartuta (%71,5), horri Gipuzkoako zenbait udalerrietan martxan dagoen bost edukiontzien sistemarekin biltzen dena batzen bazaio (%28,5), lau mila tonaraino igo zen 2010. urtean gaika bildutako organiko kopurua. Baina hiru alkateok salatzen zuten, "Lapatzeko konpostatze plantak urtean gehienez 2.500 tona jaso ditzake".

Errausketa justifikatu beharra

Oso larritzat, eskandaluzat jotzen zuten gertatzen ari dena. Oiartzungo udaleko alkateak salatzen zuten, aipatu hondakin zatiarekin batera, "herritarren esfortzuaren ia erdia zabortegira doa". Ahalegin hori zabortegira botatzea ez dela zilegi aldarrikatu zuten Beitialarrangoitiak. Errekondok gaine-



IRUDIAN, HERNANI, USURBIL ETA OIARTZUNGO ALKATE MARIAN BEITIALARRAN-
GOITIA, XABIER MIKEL ERREKONDO ETA AIOR ETXEBERRIA HURRENEZ HURREN.

ratzen zuten, honen guztiaren atzean, Aldundiaren "lehtasuna errauste planta da, baliabide ekonomikoak eta herritarren esfortzuak erraustea". Eta planta justifikatzeko, ziotenez, "atez ateko bilketa iraindu eta oztopatzea". Hori gutxi balitz, aurreko astean Carlos Ormazabalen adierazpenak ahotan hartu zituzten hiru alkateek. Hain zuzen, Aldundiak ez du aurreikusitako beste bi konpostatze planta eraikitzeke asmorik.

Halere, hiru alkateek atez ateko bilketa-arekin aurrera jarraitzeko irmotasuna erakutsi zuten.

"Non dago gure konposta?"

Lapatzeko plantaren gaitasun falta agerian uztearekin batera, gunea baime-nik gabe funtzionatzen ari dela salatu zuten. "Nola da posible?" zioten. Usurbil, Hernani eta Oiartzungo alkate-ek, gaurkoz erantzunik ez duen bigarren galdera ere badute. "5.000 tona inguru garraiatu dira Lapatzera, 2009tik. Ezer ez dugu jaso bueltan. Non dago gure konposta?"

Egoerok argitu, eta zuzentzeko elkar-lanerako prestutasuna agertu zuten, hiru udalerrietako alkateek. "Inposiziorik gabe, elkarlanerako eskua luzatua dugu", adierazi zuten prentsaurreko amaieran.

Ostiral honetan, Aldundiarekin bilera

Kazetarien galderei erantzunez, prentsaurreko amaieran iragarri zuten, ostiral honetan, martxoak 4 Gipuzkoako hainbat udale-tako ordezkariak Markel Olano Ahdun Nagusiarekin eta Carlos Ormazabal garapen iraunkorreko diputatuarekin biltzekoak dira. Hainbat alkate gipuzkoarrek otsailaren 14an Aldundian bertan erregistratu zuten bilera eskaera, errauste plantaren finantziazioari buruz hitz egiteko eta datozen hauteskundeak baino lehen, Aldundiak gai horri loturiko erabakirik har ez dezan eskatzeko.

Donostiako Ituna

Asteartean bestalde, Usurbilgo Itunaren antzera, Donostiako Ituna sinatzekoak ziren hiriburuko hainbat eragile. Usurbilgo Itunarekin bat egin du bestalde, Debagoienako Mankomunitateak. Besteak beste, Zero Zabor programak bultzatu eta errauste plantaren sei urteko moratoria eskatzen dute itunok.

Naroa Iturri, Hamaika Telebista: “Telebista parte hartzailea garen heinean, ateak irekita ditugu”

Informazio nazionala eta tokikoa jorratu nahi duen telebista, euskara hutsezkoa. Euskara da bere funtsa, eta honez gain, gure xumetasunean, alternatiba bat gara”. Modu horretan definitzen du Naroa Iturri kazetariak bere lantokia, Hamaika Telebista. Emititzen hasi zirenetik bi urte bete berri dituzte. Udalarekin sinatua duten elkarlanerako hitzarmenari esker, beste berrikuntzen artean, aurrerantzean Usurbil eta usurbildarren presentzia bermatuko da aipatu telebista katean. Iturrik berak dakartza xehetasun gehiago.

NOAUA! Bada euskaraz emititzen den telebista katerik, baina zuen bereizgarrietako bat gaiak jorratzeko ikuspegi da ezta?

Naroa Iturri. Badaude gu bezalako tokiko telebista txikiak, duela urte askotik izugarrizko lana egiten dutenak. Haiei eskertzea besterik ez dago, asko ikasi baitugu. Beraien herri eta eskualdeei mesede handia egin diete. Hamaika Telebista pribatua da. Gaur egun telebista publikoekin gertatzen dena da, ez direla ikusten gauza batzuk, betoak ere egon badaudela. Jendea informazio anitza ikusi eta entzuteko irrikaz dago. Argi duguna da geure etxean ateak ez dizkiogula inori itxiko. Anitzak izaten saiatuko gara. Ez dutenak etorri nahi, ez daitezela etorri, baina gonbita beti guztiei egina dago.

N. Bilbon ireki zenituzten ateak lehen aldiz. Egoitza zentrala bertan duzue, baina Hamaika Telebista hedapen prozesu betean dago. Nondik abiatzen da eta zertan da orain, zabalkunde prozesua?

N. I. Duela hiruzpalau urte erkidegoko lizentziak hartzeko aukera izan zen. Hamaikak hamar hartu zituen. Horren baitan, Bilboko zonaldean hastea erabaki zen. Erabakiak bere zergatia ere bazuen. Bilbon hastea pentsatu genuen, bat, Bilbo hiri erdalduna izatearen mito handia dagoelako. Baina Bilbon euskal



NAROA ITURRI KAZETARIA, HAMAIKA TELEBISTAK DONOSTIAKO ZUHATZU ENPRESA GUNEAN DUEN EGOITZAN.

komunitatea badela erakutsi eta jendeak eskertu duela uste dugu. Handik Bizkaiko beste hainbat esparruetara zabaldu zen. Hurrengo pausoa, urte eta erdi pasatxora, Donostian korrespondentsalia txiki bat zabaltzea izan zen.

NAROA ITURRI

“Jada Buruntzaldean eta Donostialdean ikusi daiteke Hamaika Telebista”

Jada, Buruntzaldean eta Donostialdean ikusi daiteke eta orain Oarsoaldea eta Bidasoaldea zabaldu da Hamaikako emisioa. Hendaian ere ikusten gaituzte. Orain bidean datorrena, Eibar eta bere inguruko bailara guztian LTD bidez ikusteko aukera da. Beraz, pixkanaka saltoak ematen ari gara. Gasteiz osoan ere LTD bidez ikusten da.

N. Egoitza nagusia Bilbon kokatu arren, hedapen prozesuak herritarrengandik are gertuago eginiko programazioa ekarriko du?

N. I. Telebista honek badu nazio ikuspuntua, hortik jorratutako saioak. Baina

oso garrantzitsua iruditzen zaigu tokiko telebista garen heinean, tokiko informazioa ere jasotzea. Asko interesatzen zaigu, Usurbilen, Lezon edo Hernanin zer gertatzen den. Alor hori, pixkanaka erreportaje eta kolaborazioen bidez jorratzen ari gara. Tokiko komunikabideekin ere hitz egin dugu. Ia denon artean, informazio hori bateratu dezakegun.

“Denok denetarik egiten dugu”

N. Zuen programazioan zer eduki, saio eta aurpegiak dute lekua?

N. I. Denetarik. Baliabide ez oso handiekin eginiko eta beste ikuspegi bat ematen duen albistegi xume, duin eta txukuna egiten saiatzen gara. Hainbat arloko elkarrizketei ere garrantzi handia ematen diegu. Telebista eta irratietan, elkarrizketek azkarrak eta ez oso sakonak izan behar dutela dirudi. Guri gustatzen zaigu, elkarrizketatua hona datorrenean gustura sentitzea, eta zer egiten duen jakin nahi dugu. Magazine bat ere badugu. Aurpegi desberdinak izan dira saio horretan, eta hori seinale ona da. Hamaikan argi dugu, denok denetarik egiten dugu. Eta horrek bere enkantua du.

Aurrerantzean, baita Usurbilgo berri ere

NOAUA! Laguntzaileekin sare bat osatzen ari zarete ezta?

Naroa Iturri. Telebista parte hartzailea nahi genuen hasieratik eta nik uste hori lortzen ari garela. Jendeak herriko telebista bat izan daitekeela ikusten du. BERRIAK egin bezala bideratu dugu akzioen kontua. Kapitala gehitze aldera, nahiz eta sozio batzuk izan, gaur egun ere akzioak lortzeko aukera bada. www.hamaika.tv web orrialdean dago telefono zenbakia. Ongi etorriak izango dira.

N. Web gunean bertan, Hamaika Telebistan edukiak ikus daitezke?

N. I. Telebistako edukiekin elikatzen dugu eta 24 orduko zuzeneko emisioa dugu. Nafarroa eta Iparraldetik ikusi nahi bagaituzte, hau da irtenbideetako bat. Aurrera begira, gure helburua euskarazko telebista bat Euskal Herria osorako izatea litzateke.

NAROA ITURRI

“Asko interesatzen zaigu, Usurbilen, Lezon edo Hernanin zer gertatzen den”

N. ETB-n lan egindakoa zara. Telebista kateak ikus-entzuleen lehia murgilduta daude. Eskaintza anitza dela eta, geroz eta zatituagoa dagoen tarta horretan, zer modutan kokatzen duzue Hamaika Telebista?

N. I. LTD ireki zenetik telebista munduaren tarta ikaragarri zatitu da. Hamaika urtez egon nintzen ETB-n lanean. Audientziaren morroi zara han. Audientzia minutuz minutu aztertzen aritzen ginen. Guk ordea ez ditugu audientziak ETB-ren moduan neurtzen eta hala lan ez egiteak estresa kentzen dizu. Intuizioz eta ahoz ahokoarekin saiatzen gara. Kolaboratzaile asko ditugu.

Araoak baldin badaude, ez gaituztela entzuten, deitu, kalean gelditu edo e-mailak bidaltzen dizkigute. Euren proposamenak bideratu ditugu. Beste modu batera jokatzeko dugu, jendearen nahi horietara.



“USURBILAN GERTATZEN DENA JORRATU ETA HERRITARREN IRITZIA ERE JASOKO DUGU”, DIO NAROA ITURRIK.

N. Usurbilgo Udalarekin elkarlanerako hitzarmen bat sinatu duzue. Zer eragin izango du Hamaika Telebistan?

N. I. Beste herriek bezala, Usurbilek ere bere presentzia izatea nahi dugu geure parrillan. Hitzarmen hauek sinatzea oso garrantzitsuak dira, ez bakarrik ekonomikoki noski, herriaren inplikazioa dugulako eta guretzat informazio iturri direlako. Beraz Usurbil ikusteko aukera izango dugu, bai erreportajeetan, bai albistegietan, bai mahai inguruetan ere Usurbilgo jendeak hitz egiteko aukera izango du. Usurbilen gertatzen dena jorratu eta herritarren iritzia ere jasoko dugu.

N. Usurbildarrek proposamenik egin edo berririk eman nahiko balute zer egin dezakete?

N. I. Telebista parte hartzailea garen heinean, atak irekita ditugu. Oso garrantzitsua da guretzat, usurbildarrek informazio iturri bezala jokatzeko. Bidal dezatela interesatzen zaiena, grabatutako bideoak, proposa ditzatela gaiak... Zuhartzun gaude. Usurbildarrei etortzeko esan, atak eta besoak zabalik hartuko ditugu.

Hamaika Donostia Telebista

Helbidea: Zubiberri bidea 29, Zuatzu enpresa parkea-Ondarreta eraikina. 20.018 Donostia.

Telefono zenbakia: 943 537 284.

Posta: donostia@hamaika.tv

Web orrialdea: www.hamaika.tv

“Leku txiki bat”, haurrei eskainitako saioa

**NOAUA! Berrikuntzak ere bada-
toz Hamaika Telebistara, ezta?**

Naroa Iturri. Proiektu berriak bidean dira orain. Teknologiar buruzko saioa hasiko dugu martxoan, gazteei begira. Beste berrikuntza, “Hurbilean” ordu erdiko elkarrizketa saioan pertsona baten ibilbideaz hitz egiten saiatuko gara. “Leku txiki bat” duela gutxi hasi duguna, haurrei zuzendutako arratsaldeko tarte bat da. Gutxi barru, Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin lotara joateko abesti bat ere egingo dugu. Beti proiektuetan pentsatzen gabiltza. Aipatzekoa da, zenbat jende dagoen gu laguntzeko prest. Hor dago Hamaikaren oinarria.



NAROA ITURRI, “ESATEA LIBRE” SAIDAN.

Erronka, 2.000 gipuzkoar batzea

Gipuzkoa Zero Zabor (GZZ) bilguneak gutxienez bi mila gipuzkoar bildu nahi ditu martxoaren 20an, Zubietan grabatuko den Flash Mob ekimenean. Herritarrak parte hartzea deitzen dituzte antolatzaileek. Entsegu saioak burutzen ari dira.

"Txuri beltzeko proiektua da erraustegia, eta guk koloretako mundu alaia nahi dugu, dantzan egiten duena, bere kideei elkartasuna adierazten diena, hondakinekiko arduraz jokatzuz murriztu, berrerabili eta birziklatu nahi duena eta osasunaren eta ingurumenaren zaintza lehenesten eta babesten duena", horixe lortu nahi du Zubietako Flash Mob ekimenaren bidez GZZ-k, ordezkariek joan den astean eskaini zuten aurkezpen prentsurrekoan adierazi zuten.

Elkartasun keinua zubietarrei

Grabaziorako eskenatoki gisa Zubietan aukeratu izana, ez da kasualitatea antolatzaileek esanetan. "Tokia eta egunarekin arazoa eta irtenbidea irudikatu nahi ditugu. Zubietan, gipuzkoarron hondakinak erreteko errauste-planta toxikoa bertan eraiki

nahi dutelako", adierazi zuten GZZ-ko ordezkariek.

Ekimenerako argitaratu duten kartela esanguratsua da. Puntu beltzez beteriko euskarria dirudi. Herritarren ikusmenarekin jolastuz ordea, errauste planta irudikatua dago, ohartaraziz, "erraustegia. Ikuste hutsak gaixotzen zaitu".

Zubietan eraiki asmo duten errauste planta egitasmoa ezkutatu nahi dutela salatzen du GZZ-k. Era berean, zuloa egin eta tximinoa estali diotela gaineratzen zuten prentsurrekoan, planta ezkutuan uzteko. Herritarrei, osasunaren alde, moratoria eskatu eta errausketari ezetz esateko, ekimenean parte hartzea deitzen diete antolatzaileek. Baita, gaineratzen dutenez, "zubietarrei elkartasuna eta kariñoa erakusteko".

Entsegua, hilaren 13an

Flash Mob-aren grabazioa dela eta, martxoaren 20rako goiz osoko festa antolatu dute Zubietan. 10:30etatik aurrera, dantza emanaldiak, ogitartekoak, barrikotea eta freskagarriak egongo dira. Baita koreografia ikasteko entsegu saioak ere, tartean, Porrotx eta Marimotots irakasle lanetan arituko dira.



AURKEZPEN EKITALDIKO IRUDIA.

DJ emanaldia egongo da eta 13:30etan Flash Mob erraldoia grabatuko da.

Hitzordua ailegatu artean, prestaketa lanek aurrera jarraitzen dute. Hurrengo entsegu saioa, martxoaren 13an burutuko da, 12:30etan frontoian. Ekimenaren inguruko informazio gehiago noiznahi, gipuzkoazz.com web orrialdean.

Santixabeletako prestaketa lanak, abian

Herriko jaietarako lau hilabete falta arren, prestaketa lanak hasiak dira jada. Joan den otsailaren 23an bildu zen lehen aldiz, Santixabeletako Jai Batzordea. Eta jada antolakuntza lanen bidean aurreneko pausoak emanak dituzte.

Zehaztua dutenez, 2011ko Santixabelak ekainaren 30etik uztailearen 3ra ospatuko dira. Aurtengoak beraz, lau jai egunetz osaturiko festak izango dira. Programatuko diren ekitaldien artean berrikuntza nabarmen bat txertatzeko asmoa du Jai

Batzordeak. Xehetasunak gerora zehazten joango diren arren, maskotaren igoera eta txupinazioa bateratzeko asmoa du Jai Batzordeak. Bi ekitaldiak jaien hasieran burutuko lirake, biak ere Dema plaza eta frontoi inguruan.

Bilera berriz, laster

Bestalde, aurtengo maskotaren egile bila dabilta. Animatzen denak Udaleko Kultura Zerbitzurarekin hartu emanetan jarri beharko du; 943 371 999 telefono zenbakira deituta edo kultura@usurbil.net helbidera e-mail bat bidalita.

Komunikazio bide berak baliatu beharko dituzte, aipatu telefono zenbakia edo posta helbidea, Santixabel jaietarako ekitaldiak proposatu eta antolatu nahi dituztenek. Aurrekontua eta ideien deskribapena, eskaera orri batean jasota, martxoaren 11 baino lehen aurkeztu beharko dira. Azkenik, egitarau lehiaketari ere garrantzi gehiago eman nahi diote aurtengoa eta jaiak genero ikuspegitik landutako irizpideak ere jasoko dituzte. Lehen bilera burutu da jada, baina ez azkena. Jai Batzordearen hurrengo bilera hitzorduak zehaztuak daude; martxoaren 23an eta apirilaren 13an hain zuzen.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8. behea · 943 363 348 · 609 888 021

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

BENTA TABERNA

**Oilasko erreak
Ogitartekoak**

San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05

Amaia Kamino, Araeta sagardotegia: “Bertako sagarrarekin eginiko sagardoa dugu”

1992tik lanean dihardute Araeta sagardotegian. Euren sagastietako fruituaren emaitza dastatzeko aukera egongo da denboraldia amaitu arte. Hara joateko gonbita egina dute Araetatik.

NOAUA! Zer nolako ekoizpena prestatu duzue aurtengorako?

Ramon Kamino. Sagardo ona dugu aurten.

Amaia Kamino. Bost kupel bete ditugu aurten. Urtarrilaren 13an hasi genuen ofizialki denboraldia, festa berezia egin genuen kirol munduko jendearekin. Orduetik irekita dugu, ia jendea animatzen den.

N. Noiz hasten dituzue denboraldia prestatzeko lanak?

A.K. Urte guztiko lana da azkenean. Hasieran sagastiak garbitu behar dituzu, atzeko lan handia dago. Sagarra bildu, sagarra jotzean ere gainean egon behar duzu. Beste maila bateko lana da eta orain dastatzea tokatzen da.

N. Kupeletan zer entzuten duzue?

A.K. Izaten dira eztabaidak, hura gehiago gustatzen zait, nik badakit, ia nagusiari zer sagardo gustatzen zaion... eta halakoak. Hori dena bezala, batzuek sagardo gozoagoa nahiago dute, besteek garratzagoa. Gustura ibiltzen dira.

N. Araeta jatetxea sagardotegia baino askoz ezagunagoa da. Zer dela eta?

A.K. Jendeak gehienbat Araeta jate-txe moduan ezagutzen du eta sagardotegia ez da ezagutzen edo jendeak behintzat ez du hartzen sagardotegi bezala. Baina jendeak jakin dezala sagardotegia ere badugula. Txotx garaian bakarrik irekitzen dugu eta gero sagardo hori botilaratu egiten da. Jatetxean bertako sagardoa soilik edaten da.

N. Sagardotegia bera bultzatu



IRUDIAN, RAMON ETA AMAIA KAMINO AITA ALABAK. SAGARDOTEGIA JATETXEA BEZAIN EZAGUN EGITEA DUTE AUERRERA BEGIRAKO ERRONKETAKO BAT.

nahian ariko zarete ezta?

A.K. Sagardoa bertan egiten dugu. Gustatuko litzaiguke jendeak beste sagardotegi baten moduan ezagutzea. Jatetxeaz gain, sagardotegi bezala.

N. Krisialdiak eragin al du bezeroen joan etorrian?

A.K. Jende gutxiago dabilela nabari da. Halere mugitzen da eta etortzen dena, gustura joaten da. Urtarrilean makal samar hasi baginen ere jendea mugitzen hasia dago. Talde handiekin lan asko egin izan ohi dugu.

N. Zergatik joan behar lukete bezeroek zuen sagardotegira?

A.K. Bertako sagarrarekin eginiko sagardoa dugu. 2004tik Zubietako sagarrarekin soilik ekoizitakoa.

R.K. Sagardoarekin pozik geratzen dira bezeroak eta bat baino gehiago sagardo kaxa hartuta etxeratzen da.

N. Emakumeak ere zuen tartea egiten ari zarete, tradizionalki gizonezkoena izan den munduan ezta?

A.K. Emakumeak geroz eta gehiago ikusten dira, sagardozale elkarteetan ere geroz eta gehiago mugitzen dira eta ardurak gehiago hartzen ari gara. Gure lanerako joerak ere aldatzen joan dira

eta geroz eta emakume gehiago dago lan merkatuan eta honetan ere tokatu da. Pixkanaka martxa hartzen ari gara.

R.K. Eta bezeroen artean ere emakume asko dago. Lehen 80 gizonezko eta hiru emakume etortzen ziren, orain gauzak asko aldatu dira.

Bakailaoa, bezeroen gustukoena

N. Etxeko gomendiorik bai menuari dagokionean?

A.K. Bezeroak bakailoarekin geratzen dira oso gustura.

N. Menua, sagardotegikoa?

A.K. Hala da. Baten batek ez badu nahi, jatetxea dugunez, beste zerbait eskaintzeko aukera dugu. Baina oro har, sagardotegira datorrenak sagardotegiko menua aukeratzen du.

Datuak

Informazio gehiago eta erreserbak: 943 362 049 - 943 366 604, araeta.com edo araeta@araeta.com

Zenbatentzat lekua: 100 bat lagunentzat.

Irekiera epea: txotx garaia.

Kupelak: bost.

Zirrikitu guztietan barrena

Sare sozialetan ere aurkituko duzu NOAUA!ren arrastoa

Facebook, Twitter, Tuenti... Sare sozialak pil-pilean daude gaur egungo Interneten; gizarte birtualaren isla dira, eta harreman pertsonalak eta profesionalak sortzeko balio dute. Hedabideek ere sare soziale-tarako bidea hartu dute. Ildo horretan, Facebook eta Twitter sare sozialetan bere tokia hartu du NOAUA!k. NOAUA! paperezko astekariaren eta www.noaua.com web orrialdearen osagarri.

Erabili ala ez erabili, Facebook, Twitter edo Tuenti, gero eta oihartzun handiagoa duten hitzak dira. Sare sozial hauen bitartez, kontaktu asko egiteko aukera dago eta, era berean, norberak bere kontaktuen informazioa jasotzeko aukera du. Informazio hori hainbat gauza adierazteko izan daiteke: mezu motzak eta zehatzak informazio konkretua emateko, edo bakoitza zer egiten ari den edo momentu batean zer pentsatzen edo sentitzen ari den adierazteko.

Facebook, sare ezagunena

Jabi Asurmendi Bitarlan Informatika Zerbitzuak enpresako kideak Berrian adierazi izan duen moduan, "argazkiak, bideoak, audioak, estekak, artikulak eta bestelako multimedia elementuak partekatu ahal dira kontaktuekin. Gainera, kontaktuek iradokizunak egin ahal dituzte partekatzen diren elementuetan, edo eztabaidak sortu ahal dira".

Bakoitzak helburu ezberdinekin erabiltzen ditu sare sozialak: normalean, edo aspaldian ikusten ez duen jendearekin duen harremanari eusteko, maiz ikusten duen jendearekin beste komunikazio baliabide bat edukitzeko -telefonoa eta posta elektronikoa bezala-, lagun berriak edo harreman sentimentalak lortzeko, bere nortasuna eta izaera Interneten plazaratzeko, edo bere arlo profesionala bultzatzeko zein enpresa baten publizitatea egiteko.

Sare sozial batzuk erraldoiak dira, eta erabiltzaile kopuru itzela dute; Facebook-ek, esaterako, 600.000.000 erabiltzaile aktibo inguru dauzka. MySpace-k, berriz, 200.000.000 baino



NOAUA!K TWITTER SAREAN DUEN ATARIA.

gehiago; ez da gutxi.

Informazioari lotutako hedabideak ere facebook sare sozialeko bidea hartu dute eta NOAUA!k ere salto hori eman zuen iaz. Paperezko edizioaren aldean, unean uneko albisteak zabaldu edota irudi bitarteko albisteak plazaratzeko baliatu dugu NOAUA!tik facebook sarea: www.facebook.com/noaua

Web eta sare sozialen arteko aldea

Sare sozialetan eskaintzen den informazioa bideratuago dago. Izan ere, webgune batean mundu zabalera argitaratzen dira gauzak, www.noaua.com/ esate baterako, baina sare sozial batean, erabiltzaile baten kontaktua denari, nolabait ere, interesatzen zaio erabiltzaile horrek esan dezakeena edo zabaldu ahal duen informazioa.

Twitter, hitz gutxikoa

Twitter baliabidearen gakoa informazioa ematea da, mezu motzen bitartez. Horrela, informazioa zehatzagoa eta zuzenagoa izaten da. Esan bezala, Twitter da ideia honetan oinarritu zen lehenengoetariko webgunea, eta gaur egun arlo honetan gehien erabiltzen dena dela esan daiteke. Twitterren 140 karaktere idatzi ahal dira gehienez sarre-

ra bakoitzeko. Telefono mugikorrerako espezial pentsatutako sare soziala dela esan daiteke.

Beste erabiltzaileen Twitter-ak jarraitu daitezke, beren mezuak irakurri. Horrela, informazioa emateko eta zabalatzeko ez ezik, informazioa edateko eta jasotzeko ere balio du. Hau gure twitter helbidea: twitter.com/noaua

Lagun birtualak

Facebook-en, gustuko profilaren edo orrialdearen lagun izateko aukera dago, Esate baterako, NOAUA!ko orrialdea zure interesekoa bada, jarraitzaile egiteko aukera duzu. Baina profilaren kudeatzaileak (NOAUA!ren kasuan, erredakzio taldeak), lagun eskaera baieztatu behar du.

Dagoeneko, talde zein norbanako ugari dira NOAUA!ren jarraitzaile: Agirretxe Taldea eta Usurbil FT Harane; Hotzikara, Mendeku ItXua edota Odolaren Mintzoa musika taldeak; Akerra Gaztetxea zein Gernika Usurbil taldea; Hamaikabat edota Usurbil Eginez, Usurbilgo Lanbide Eskola...

Sare sozialak eta gazteak hizpide, Hitz Ahok antolatutako datozen bi ekitalditan

Urte gutxian indar bizia hartu duten sare sozialak eta gazteak hizpide nagusi hartuta, bi ekitaldi antolatu ditu Hitz Aho Udaregi ikastolako Guraso Elkarteak. Gai honen inguruko hausnarketa bultzatu nahi dute martxoko lehen hamabostaldira-ko iragarri dituzten hitzorduon bidez. Gaiaren alderdi teorikoa eta praktikoa jorratuko dituzte.

Hasteko, Ordiziako Jakintza ikastolako irakasle eta teknologia berrietan aditu Maite Goñik hitzaldia eskainiko du martxoaren 10ean, arratsaldeko 18:00etan Udaregi ikastolako erdiko aretoan. Antolatzailleek berri eman dutenez, "gaur egungo gizartean aldatzen ari dira komunikatzeko moduak:

messenger, facebook, twenti, twitter... Sare sozial desberdinen gogoeta egiteko hausnarketa egin nahi du Udaregi ikastolako guraso elkarteak. Sare sozial hauen onura nahiz arriskuen inguruan".

Twenti emanaldia

Sare sozialen alderdi praktikoa ere jorratu nahi dute, kasu errealean bidez. Horretarako, Gaztelekuko hezitzaile eta gazteekin elkarlanean antolatu da aipatu gaiari lotutako bigarren hitzordua.

Hitz Ahotik iragarri dutenez, "Gaztelekuko gazteak twentian arituko dira beraien artean eta emanaldia eskainiko diete Udaregi ikastolako gurasoei". Martxoaren 14an izango da,

arratsaldeko 17:00etan Udaregi ikastolako erdiko aretoan. Bi ekitaldiak, LH 4.mailatik DBH-ko 4.mailara arteko ikasleen gurasoei zuzenduak egongo dira.

Tailer berria, Gaztelekuan

Makillaje tailerra antolatzeko asmotan dabilta Gaztelekuko hezitzaile eta ikasleek martxoaren 21 edo 28rako. Hil honetako azken bi astelehenetako batean, egun bateko bi orduko saioa burutu nahi dute, arratsaldez, 17:30-19:30 artean.

Gaztelekuko gazteei zuzenduriko ekimenean parte hartu nahi duenak izena aldeztatik emateko aukera izango du, martxoaren 7an, datorren astelehenean. Tailerrean parte hartzeko 2 euro ordaindu beharko dira.

Udaregi ikastolako DBH 3.mailako ikasleak, goiz pasa Urnietako ontzi arinen bereizte plantan

Otsailaren 3an DBH 3. mailako ikasleok Urnietako ontzi arinen bereizketa plantara joan ginen. Goizeko 09:00etan autobusa hartu eta fabrikara iritsi ondoren, bertako langileetako batek, bereizketaren funtzionamendua azaldu zigun. Usurbilgo ontzi arinak bertan bereizten direlako joan ginen Urnietara. Hauxe da bereizte prozesua.

Lehenik eta behin bereizte lan hau egiteko ontzi arinak bakarrik bota behar dira. Ontzi arin hauek makina ezberdinetatik pasatzen dira: indukzioz, imanez, haizez, eskuz...eta ontzi mota ezberdinetan sailkatzen dira: aluminioa, brikak, dentsitate baxuko eta altuko polietilenoa, PET delakoa... Behin dena sailkatuta dagoenean, prentsatu egiten dituzte eta hauek, gero, pilatu eta birziklatzeko fabrikei saltzen dizkiete. Ontzi arinak ez direnak, berriz, errefusa moduan beste



ONTZI ARINEN BEREIZKETAREN FUNTZIONAMENDUA IKASI ZUTEN.

toki batzuetara eramaten dituzte (hauetaz beste %10eko portzentaia deritze).

Ondo bereizi beharra

Zalantza batzuk ere argitu zizkiguten, hauek izan ziren nagusienak.

Haurren plastikozko jostailuak, plastikozkoak izan arren, ez ditugu ontzi horira bota behar. Izenak dioen moduan, ontzi arinen edukiontzia

baita. Zerbait gordetzeko erabiltzen diren edukiontzia eta edarien metalzko latak biltzen dira bertan. Poliespanezko bandejak, plastikozko poltsak eta ontziak...

Planta honetan, prentsaturako ontziak beste fabrikei saltzen dizkie eta guk zaborra ondo bereizten ez baldin badugu, prentsaturako paketeak kalitate gutxiago izango du eta gehiago kostako zaie saltzea.

Udarregi ikastolak “Inautaroak” ospatuko ditu, ostiralean Oiardo Kiroldegian

Asteotan burututako prestaketa lanen emaitza ikusteko aukera izango da ostiral honetan, martxoak 4. Inauterietako ikuskizuna eskainiko dute Udarregi ikastolako ikasleek. Goizeko 11:15etatik aurrera Oiardo Kiroldegian.

Urtero gai baten inguruan oinarritu ohi dute ikuskizuna. Aurtengoan, “Inautaroak” izenarekin bataiatu dute mozorro festari lotuta ostiral honetan eskainiko duten emanaldia.

Haur Hezkuntzako 3,4 eta 5 urteko haurrek apaindutako zakuekin parte hartuko dute festa giroan. Lehen Hezkuntzakoek mailaka, garai eta herrialde desberdinetako gizakiak ardatz hartuta koreografia ikusgarriak eskainiko dituzte. Txinatarrak, arabia-

rrak, lehen gizakiak, Erdi Arokoak... agertuko dira Oiardo Kiroldegiko pistara.

DBH-ko lehen hiru mailetako ikasleek ere parte hartuko dute ekimenean. Baina Udarregi ikastolatik ez dute eskainiko dituzten emanaldien xehetasunik aurreratu nahi. Sorpresa izango da.

